Usamos títeres y máscaras porque unen al espectador con una parte ancestral de los mismos, creando empatía en adultos y niños provocando en el espectador una respuesta emocional y una involucración que rara vez se da con actores. Es además un elemento necesario a la hora de representar con fidelidad el universo estético de El Bosco cuya pintura tiene la fuerza onírica y mágica de los cuentos en la caverna: síntesis de anhelos, miedos y esperanzas del ser humano. Fascina especialmente a niños y niñas más allá de la comprensión de su compleja simbología que transformamos aquí en un cuento adaptado a ellos.

Claroscvro cree en la fuerza narrativa de la música, especialmente de la música antigua que -como la tradicional- posee capas de emoción que atrapan al oyente, sea cual sea su edad. Es mucho más que un mero acompañamiento al uso: su poder evocador ayudará al niño y a la niña a seguir la historia al margen de su innegable valor didáctico. Creemos además que el teatro es la mejor vía para hacer llegar a los niños y niñas esta música.

*Perdida en el Bosco* es una recreación esteticista que no renuncia a los valores y a la educación, con la convicción de que la belleza es el vehículo perfecto para amar el arte y de que los niños tienen capacidad suficiente para apreciarlo.

## **CLAROSCVRO** antzerki konpainia | compañía de teatro

Julie Vachon eta Francisco de Paula Sánchezek sortua 2010ean, Claroscvro antzerki taldeak txotxongiloak, maskarak eta musika erabiltzen ditu bere istorioak kontatzeko.

Beren lehen ikuskizunak, *Yo soy la Locura*, aipamen berezia lortu zuen Almagroko Nazioarteko Jaialdian, "Musika ondare barrokoa berreskuratzeagatik, bere zorroztasun espresiboagatik eta bere irudien fintasun poetikoarengatik", eta munduko lau ikuskizun onenetako bat iritzi zioten 2015ean Young Audiences Music Awards (YAMA) sarien antolatzaileek eta European Network for Opera and Dance Education (RESEO) erakundeak.

Taldearen bigarren ikuskizuna, *Lazarillo*, lau jaialdi handik ekoitzi zuten elkarrekin. Kritikaren laudorioak jaso ditu eta Aipamen Berezi bat Almagroko Nazioarteko Jaialdian ere saritua izan da.

Taldearen azken ikuskizuna *Perdida en el Bosco* Zarzuela antzokian estreinatu zen 2018an, eta bi denboralditan taularatu zen. Ikuskizun hau Ciudad Rodrigoko Antzerki Jaialdian aukeratua izan zen 2018an.

### FRANCISCO DE PAULA

Francisco de Paulari umetan denek esaten zioten Curro… Lagunek hala deitzen diote gaur egun ere, eta berari gustatzen zaio. Umetan jostailuak egiten zituen bere eskuz, eta lagunek horiexek nahi dendakoak baino gehiago. Paperezko antzoki bat ere bazeukan, ehun urtetik gorakoa. Beharbada horregatik maite du antzerkia egitea txotxongiloekin, horixe da bere zorion handiena… hori eta *Toy Story* ehun aldiz ikustea. Biziki maite du musika: posible egiten dizu amets egitea begiak zabalik eta hobeto sentitzea gaizki zaudenean.

Fundada en el año 2010 por Julie Vachon y Francisco de Paula Sánchez, Claroscvro es una compañía de teatro que usa títeres, máscaras y música en vivo para dar forma a sus historias.

Su primer espectáculo *Yo soy la Locura* fue premiado en el Festival Internacional de Almagro con una mención especial "Por la recuperación del patrimonio musical barroco, el rigor expresivo y la delicadeza poética de las imágenes", y considerado uno de los cuatro mejores del mundo en 2015 por los Young Audiences Music Awards (YAMA) y la European Network for Opera and Dance Education (RESEO).

Su segundo espectáculo, *Lazarillo* fue coproducido por cuatro grandes festivales. Ha sido recibido con gran éxito de crítica y premiado en el Festival Internacional de Almagro.

Su último espectáculo *Perdida en el Bosco* ha sido estrenada en el teatro de la Zarzuela en el año 2018 repitiendo una segunda temporada. Este espectáculo ha sido seleccionado por la Feria de Teatro de Ciudad Rodrigo en 2018.

### FRANCISCO DE PAULA

A Francisco de Paula de niño todos le decían Curro… los amigos aún le llaman así y a él le gusta. De pequeño se hacía sus propios juguetes, que sus compañeros de colegio envidiaban más que los comprados. También tenía un teatro de papel chulísimo que tiene 100 años de antigüedad. Quizás por eso ahora le gusta hacer teatro con títeres, que es lo que le hace más feliz de todo… eso y ver cien veces *Toy Story*. Le gusta mucho la música: te permite soñar con los ojos abiertos y hacerte sentir mejor cuando lo pasas mal.

## JULIE VACHON

Julie neskato bat da nagusi baten gorputzean sartua. Maite ditu katuak, pegatinak, purpurinazko arkatzak, egun euritsuak, postalak idaztea Kanadako lagunei eta litxarreriak jatea. Ideia gabe geratzen denean bere etxeko hirugarren solairura joaten da burbuilak egitera. Ipuinak eta komikiak irakurtzen ditu, eta bere amets handiena da umeentzako ipuin bat idaztea, gero liburu bihurtuko dena, bere ilustrazio eder eta guzti. Diru mordo bat gastatzen du liburuak erosten, eta libreta bilduma bat dauka, era guztietako, ideia handiak euretan markatzeko. Jean Cocteauren *Ederra eta piztia* da bere pelikula gogokoena. Umetatik daukan ohitura bat da korrika hastea arrazoirik gabe, eta gorroto du ohea egitea. Faltan botatzen du elurra baina bere burua kontsolatzeko izotzetan patinatzen du.

## EMILIO VILLALBA

Emilio Sevillan jaio zen 1976ko San Juan gauean. Gogoratzen du nola, umetan, gurasoek beti eramaten zuten oporretan hondartzara jostailuzko pianotxo bat edo bere arreba nagusiaren gitarra. Horrela ikasi zuen musika jotzen. Geroztik berekin doa beti musika egin eta jotzeko nahia eta kezka. Antzinako tresnek liluratzen dute, bereziki hari tresnek. Halako mordo bat jotzen ikasi du: Erdi Aroko gitarra, biola, harpa…...

## SARA MARINA

Sara kordobarra da jaiotzez eta sevillarra bizitzez. Maitemindua dago Andaluziako historia, musika, bazter eta kulturarekin. Umetan pianoa jotzen ikasi zuen bere aititarekin eta eskolak ematen zizkien herriko umeei.

## JULIE VACHON

Julie es una niña en un cuerpo de adulto. Le gustan los gatos, las pegatinas, los lápices de purpurina, los días lluviosos, escribir cartas postales a sus amigos en Canadá y comer chuches. Cuando no tiene ideas se va a la tercera planta de su casa para hacer pompas al viento. Lee cuentos y cómics y su gran sueño es escribir un cuento para niños y niñas que se convierta en libro con magníficas ilustraciones. Gasta mucho dinero en libros. Y tiene una colección de libretas de todo tipo para apuntar grandes ideas. Su película favorita es *La bella y la bestia* de Jean Cocteau. Ha guardado desde niña la costumbre de ponerse a correr sin ninguna razón y odia hacer su cama. Echa de menos la nieve, pero lo arregla patinando sobre hielo.

## EMILIO VILLALBA

Emilio nació en Sevilla en la noche de San Juan de 1976. Recuerda que, de pequeño, en las vacaciones en la playa, sus padres siempre llevaban un pianito de juguete o la guitarra de su hermana mayor. Así aprendió música. Desde entonces le acompaña la inquietud y la necesidad de hacer y tocar música. Los instrumentos antiguos le encantan, especialmente los de cuerda. Ha aprendido a tocar un montón de ellos: la guitarra medieval, la viola, el arpa...

## SARA MARINA

Sara es cordobesa de nacimiento y sevillana de adopción. Es una enamorada de la historia de Andalucía, de sus leyendas, su música, sus paisajes y su cultura. De pequeña aprendió a tocar el piano con su abuelo y ya daba clases a los niños de su pueblo.

EGURRA
ETA
SOKA

# BAS



© Felix Broede

**JEREMIAH**

**Apirilak 15 Abril 20:00**

**David Orlowsky**
klarinetea | clarinete

## SINGER PUR

**Claudia Reinhard**
sopranoa | soprano

**Rüdiger Ballhorn**
tenorea | tenor

**Markus Zapp**
tenorea | tenor

**Manuel Warwitz**
tenorea | tenor

**Reiner Schneider-Waterberg**
baritonoa | barítono

**Marcus Schmidl**
baritonoa | barítono

## JEREMIAH

*lamed. Matribus suis dixerunt* "Lamentationes
Jeremiae prophetae" - Feria VI in Parasceve, Lectio II .................................. Giovanni Pierluigi da Palestrina (1514/15-1594)

*O bone Jesu**.......................................................................................... Giovanni Pierluigi da Palestrina

*Sicut ovis ad occisionem* ............................................................................... Canto Gregoriano

*Sicut ovis ad occisionem** .............................................................................. Carlo Gesualdo (1566-1613)

*Tota pulchra es* (2009) .................................................................................. Matan Porat (*1982)

*Pulchra es, o Maria virgo*................................................................................. Giovanni Pierluigi da Palestrina

*Tristis est anima mea* ..................................................................................... Canto Gregoriano

*Tristis est anima mea** ................................................................................... Carlo Gesualdo

*O vos omnes**.......................................................................................... Carlo Gesualdo

*Lux Aeterna* (2009) ....................................................................................... Matan Porat

*Aleph. Ego vir videns paupertatem meam* of "Lamentationes
Jeremiae prophetae" - Feria VI in Parasceve, Lectio II .................................. Giovanni Pierluigi da Palestrina

**arreglo de Matan Porat*

# egitarauari buruz | notas al programa

*Jeremiah* lana Singer Pur-en eta David Orlowsky klarinete-jolearen proiektu bat da, bere CDarekin Echo Klassik saria irabazi zuena 2011n. Proiektu honetan sinbiosi miragarrian txirikordatzen dira Errenazimenduko musika liluragarria eta klarinetearen interpretazio poetikoa. Gure helburua izan da omenaldi bat egitea Errenazimenduko eliz polifoniako konpositore handiei, Palestrina eredugarriari eta Gesualdo ausartari. Proiektu honetan bidea ireki diogu interpretazio historiko puristari eta inprobisazioari. Iturriek gure egunetaraino helarazi duten hori Singer Pur-ek abesten duen bitartean, David Orlowsky-k sigi-sagaka darabil bere klarinetea testuraren kanpotik eta barrutik, batzuetan Matan Porat-ek konposatutako inprobisazioan, nolabait deitzearren.

*Jeremiah* lanak prentsaren laudorioak jaso ditu, zeinaren arabera edertasun malenkoniatsuzko eta  betetasun hitsezko proiektu bat baita, David Orlowsky-ren melodia belusatu eta ia ilaunekin.

*Jeremiah* es un proyecto de Singer Pur junto al clarinetista David Orlowsky, cuyo CD recibió el premio Echo Klassik en 2011. Jeremiah es una simbiosis única de fascinante música del Renacimiento y poética interpretación de clarinete. El objetivo común fue el de realizar un homenaje a los grandes compositores de polifonía sacra del Renacimiento, ejemplar Palestrina y audaz Gesualdo. Para este proyecto los intérpretes abrieron el camino de la práctica de la interpretación purista histórica y la improvisación. Mientras Singer Pur canta lo que las fuentes han transmitido hasta nuestra época, David Orlowsky añade sus voces de clarinete ondeando dentro y fuera de la textura, algunas veces en la improvisación compuesta por Matan Porat.

*Jeremiah* ha recibido buenas críticas por parte de la prensa que lo ha calificado como un proyecto de belleza melancólica y lúgubre esplendor, donde las melodías de David Orlowsky son aterciopeladas, casi tenues al oído.

# SINGER PUR

Eskola garaian piztu zitzaielarik *a capella* abesteko asmoa, “Regensburger Domspatzen” eskolaniako bost kide ohik Singer Pur sortu zuten 1991n, ikasketak bukatu eta handik oso gutxira.

Ustekabeko maitasun istorio batek soprano bat erakarri zuen taldera. 1994an, ahots konbinazio bitxiko seikote honek (soprano bat, hiru tenor, baritono bat eta baxu bat) lehen saria irabazi zuen “Deutscher Musikwettbewerb” lehiaketan. Urtebete geroago, ahots-taldeen “Grand Prix” saria irabazi zuen Tampere-ko Nazioarteko Musika Jaialdian.

Irrati eta telebistako agerraldiek, CD grabaketek eta 60 herrialdetako jaialdi garrantzitsuetatik jasotako gonbitek aupatu dute beren nazioarteko karrera.

Singer Pur taldeak beste musikari batzuekin kolaboratzen du, hala nola Kent Nagano maisuarekin -zeinak pertsonalki gonbidatu baitzuen ahots-taldea Elbphilharmonie jaialdira-, Michael Riessler eta David Orlowsky klarinete-joleekin, eta mota guztietako orkestrekin, esaterako, hauekin: Rundfunk- Sinfonieorchester Berlin, Rundfunk-Sinfonieorchester Köln, National Symphony Orchestra China, Ensemble Musikfabrik, Modern eta The Hilliard Ensemble.

Hainbat grabaketa eta kontzertu egin dituzte azken horiekin, eta orobat parte hartu zuten erretiratu aurretik Alemanian eman zuten beren azken kontzertuan.

Singer Pur taldeak 30 CDko diskografia du eta sari garrantzitsuak eskuratu ditu, esaterako, Le Choque saria.

El propósito de hacer música *a cappella* se desarrolló en la escuela, ya que poco después de terminar, cinco antiguos miembros de la escolanía “Regensburger Domspatzen” fundaron Singer Pur en 1991.

Un fortuito asunto de amor llevó a una soprano a sus filas. En 1994 el sexteto, con una inusual combinación de voces (una soprano, tres tenores, un barítono y un bajo), ganó el primer premio en el “Deutscher Musikwettbewerb”. Un año más tarde recibió el “Grand Prix” para conjuntos vocales en el Festival internacional de música de Tampere.

Sus apariciones en televisión y radio, grabaciones de CDs, invitaciones a prestigiosos festivales y conciertos en 60 países, han establecido su carrera internacional.

Singer Pur colabora con otros músicos como el Maestro Kent Nagano quien invitó personalmente a Singer Pur a la Elbphilharmonie, con los clarinetistas Michael Riessler y David Orlowsky, con orquestas como la Rundfunk- Sinfonieorchester Berlin, Rundfunk-Sinfonieorchester Köln, National Symphony Orchestra China, Ensemble Musikfabrik, Ensemble Modern y The Hilliard Ensemble. Con este último ha participado en grabaciones y conciertos, incluyendo su último concierto en Alemania previo a su retirada definitiva.

La discografía de Singer Pur consta de 30 CDs y cuenta con algunos importantes premios como Le Choque.

## **DAVID ORLOWSKY** klarinetea | clarinete

David Orlowsky Alemaniako Tübingen hirian jaio zen 1981ean. Manfred Lindner-ekin ikasi zuen Essen-eko Folkwang Hochschule-n eta Charles Neidich eta Ayako Oshima-rekin New Yorkeko Manhattan School of Music-en.

Adierazkortasun eta sakontasun handiko musikari bezala ekarria, ezaguna da mundu osoan punta-puntako klarinete-jolea delako eta errepertorio zabala lantzen duelako, hasi Mozartengandik eta Golijov eta Klezmer-enganaino. Sony Artist zigiluarentzat soilik lan egiten du eta zazpi CD grabatu ditu, horietatik bik jaso dutelarik ECHO Klassik saria.

David Orlowsky-k bakarka nahiz bere hirukotearekin (The David Orlowsky Trio) jotzen du nazioarteko ospea duten jaialdi eta eszenatoki askotan.

Davidek artista ugarirekin kolaboratzen du, hala nola, Daniel Hope, Andreas Haefliger, Vilde Frang, The Faure Quartett, Nils Moenkemeyer, The Danish String, Quartet, Igor Levit, Vogler Quartet eta Avi Avital mandolina-jole birtuosoarekin.

Torsten Rasch, Matan Porat eta David Bruce konposatzaile garaikideak ere, bere adiskide minak dira.

Orobat parte hartzen du *Rhapsody in School* ekimenean eta beste hainbat proiektu berezitan –esaterako, bada bat Dominique Horwitz aktore alemanarekin batera egiten duena, non Klezmer musika konbinatzen baitu hitzarekin- eta proiektu propio bat ere badu: JEREMIAH.



David Orlowsky nació en la ciudad alemana de Tübingen en 1981, estudió con Manfred Lindner en la Folkwang Hochschule de Essen y con Charles Neidich y Ayako Oshima en Manhattan School of Music de Nueva York.

Es ampliamente reconocido como un músico de tremenda expresividad y profundidad y conocido a nivel mundial como uno de los clarinetistas líderes, cuyo repertorio abarca desde Mozart a Golijov y klezmer. Artista exclusivo de Sony Artist, David ha grabado siete CDs, dos de los cuales han recibido el premio ECHO Klassik.

Ha actuado como solista y con su trío (The David Orlowsky Trio) en numerosos festivales y escenarios de renombre internacional.

David colabora con multituld de artistas, entre ellos Daniel Hope, Andreas Haefliger, Vilde Frang, The Faure Quartett, Nils Moenkemeyer, The Danish String Quartet, Igor Levit, Vogler Quartet y el virtuoso de la mandolina Avi Avital.

Le une una gran amistad personal a los compositores contemporáneos Torsten Rasch, Matan Porat y David Bruce.

También participa en Rhapsody in School y en proyectos especiales como el que realiza con el actor alemán Dominique Horwitz combinando música klezmer con palabra hablada y su proyecto JEREMIAH.

E G U R R A
E T A
S O K A

# BAS



© Santiago Torralba

**Pasioa San Markosen arabera BWV247**
***Pasión según San Marcos BWV247***

**Apirilak 16 Abril 20:00**

## CONDUCTUS ENSEMBLE

**Christian Zenker**
tenorea | tenor

**Manfred Bittner**
baxu-baritonoa | bajo-barítono

**Jone Martínez**
sopranoa | soprano

**Lucía Gómez**
mezzosopranoa | mezzosoprano

**Gabriel Díaz**
kontratenorea | contratenor

**Ariel Hernández**
tenorea | tenor

**Jesús García Aréjula**
baxua | bajo

**Andoni Sierra**
zuzendaritza | dirección

## Pasioa San Markosen arabera | Pasión según San Marcos BWV247

Johann Sebastian Bach (1685-1750)

Bakarlari, abesbatza eta orkestrarentzako oratorioa

Oratorio para solistas, coro y orquesta

# egitarauari buruz | notas al programa

*"Hildakoak Pasioari buruz egin dituen lan inprimagabeak bost dira gutxi gorabehera, eta horien artean batek koro bikoitza du"*

J. S. Bachen *Necrologio, Nueva Biblioteca Musical* aldizkaria, 1754. urtea

Aipu horrek eta antzeko batzuek iradokitzen duten bezala, J. S. Bachek bost pasio idatzi zituen. Horietatik bi ezagunak dira, eta galdu diren beste hiruren artean bata San Markosen araberako pasio bat da, 1731n interpretatu zena lehen bertsio batean eta 1744an bigarren bertsio batean.

2009an aurkitu zelarik San Petersburgen Picander-en libreto bat 1744ko bigarren bertsio horretarako, argi geratu zen partitura hori benetan existitu zela nahiz eta, zoritxarrez, hari buruzko azken informazio-iturri zuzenak Dresderen bonbardaketan suntsitu ziren Bigarren Mundu Gerraren azken urtean, itxuren arabera.

Badira historikoki frogatutako zenbait elementu: lan horren 1764ko edizio baten azala, instrumentu sortaren gaineko xehetasunak eta sorta horren berezitasuna, Picander-en libretoak, eta Bachek berak bere adiskide Ernest Erdmann-i idatzitako zenbait gutun. Aintzat harturik horiek guztiak, musikologo zenbaitek erabaki zuten lan hori berreraikitzen saiatzea.

Une honetan lan horren 25 bat bertsio daude, elkarren antzekoak neurri handi batean. Jarraian eskaini behar dugun bertsioa prestatzean kontuan hartu dira azken ikerketak.

Nahiz eta inork ezin duen esan guztizko ziurtasunarekin 1731ko eta 1744ko ostiral santuetan entzun zen musika hura eta berreraikitako bertsioa berdinak direla, zatiz badere, badira hainbat arrazoi pentsatzeko izan daitezkeela.

*"Las obras sobre la pasión no impresas del difunto son aproximadamente las siguientes cinco pasiones entre las que hay una a doble coro"*

*Necrologio* de J. S. Bach, revista *Nueva Biblioteca Musical,* año 1754

Según se deduce de esta cita y otras similares, J. S. Bach escribió hasta cinco pasiones. Dos son conocidas y, de entre las tres perdidas, una era una Pasión según San Marcos que fue interpretada en 1731 en una primera versión y en 1744 en una segunda.

La aparición en el año 2009 en San Petersburgo de un libreto de Picander para esa segunda versión de 1744 no hizo sino confirmar la existencia de esa partitura de la que, desgraciadamente, las últimas fuentes directas conocidas se perdieron, según parece, en el bombardeo de los aliados sobre la ciudad de Dresde al final de la Segunda Guerra Mundial.

Una serie de circunstancias históricamente probadas tales como: la portada de una edición de la obra de 1764, el detalle y la particularidad de la plantilla instrumental, los libretos de Picander y diversas cartas del propio Bach con su amigo Ernest Erdmann, animaron a diferentes musicólogos a abordar un trabajo de reconstrucción de la obra.

En la actualidad se pueden contabilizar hasta 25 versiones diferentes que coinciden entre ellas en una parte muy significativa de la música propuesta. La versión que seguidamente ofrecemos ha tenido en cuenta las más recientes investigaciones.

Aunque nadie puede afirmar con certeza que la música que sonó aquellos viernes santos de 1731 y 1744 sea, al menos parcialmente, la que estas reconstrucciones proponen, no cabe duda de que son muchas las circunstancias que hacen pensar que pudo ser.

## CONDUCTUS ENSEMBLE

2002an sortua, ehundik gora kontzertu eman ditu harrezkero antzoki eta areto garrantzitsuetan.

16 sopranok, 16 kontralto eta kontratenorrek, 12 tenorrek eta 12 baxuk osatzen dute ahots-taldea. Instrumentuen plantilla, bestalde, bi multzotan banatzen da: bata, antzinako musikan espezializatua eta, bestea, garai guztietako errepertorioa lantzen duena.

Kritika espezializatuak eta publikoak aho-batez txalotu dituzte talde horiek guztiak, beti saiatu direnak kontzertu bakoitza esperientzia berezi bat bihurtzen publikoarentzat eta taldeko musikarientzat. Irizpide historizistekin interpretatzen dituzte Errenazimendutik XX. menderaino doan errepertorio izugarri zabal bat.

Inoizko errepertorio enblematikoena lantzeaz gain, arreta handia eskaini diete egungo publikoarentzat ezezagunak diren baina interes musikal handia duten obrei.

Bere hurrengo proiektuen artean aipagarriak dira: Bachen Kantata guztiak eta *Misa Brevis*; M. Sagastiren *Requiem*-a (berreskuratze-lana bere heriotzaren bigarren mendeurrena ospatzeko); J. M. Haydn eta W. A. Mozarten *Misa Brevis*-en aukeraketa bat; eta J. Haydnen *Nelson Mass*.

Fundado en el año 2002, Conductus Ensemble ha ofrecido, desde entonces, más de un centenar de conciertos.

La plantilla vocal actual está formada por un coro de 16 sopranos, 16 altos y contratenores, 12 tenores y 12 bajos. La plantilla instrumental cuenta con dos secciones, una especializada en Música Antigua, y otra que aborda el repertorio de todas las épocas.

La crítica especializada y el público han coincidido en el aplauso unánime a todas estas formaciones cuyo empeño ha sido siempre hacer de cada concierto una experiencia especial para el público y para sus propios músicos a través de la interpretación con criterios historicistas de un amplísimo repertorio que discurre desde el Renacimiento hasta el Siglo XX.

Además de abordar el repertorio más emblemático, han dedicado una especial atención a la interpretación de obras de un gran interés musical que son menos conocidas por el público actual.

Entre sus próximos proyectos destaca la interpretación de la integral de las Cantatas de Bach, sus *Misas Brevis*; la recuperación del *Requiem* de M. Sagasti en el bicentenario de su muerte; una selección de *Misas Brevis* de J. M. Haydn y W. A. Mozart, y la *Misa Nelson* de J. Haydn.

## **CHRISTIAN ZENKER** tenorra | tenor *(ebanjelaria / evangelista)*

Windsbach haur-abesbatzako kide izan zen, eta Municheko Musika eta Arte Eszenikoen Unibertsitatean graduatu zen. Ikasketak amaitu baino lehen, Brigitte Fassbaender-ek Tiroler Landestheater talderako kontratatu zuen, eta bertako kide izan zen 2002tik 2006ra.

Gonbidatu bezala abestu du hainbat jaialdi eta antzokitan, besteak beste, hauetan: Rheinsberg opera jaialdian, Seefestpielen Mörbisch-en, Halle-ko Handel jaialdian, Dresdeko musika jaialdian, Eisenstadt-eko Haydn jaialdian, Linz-eko Bruckner jaialdian, Bonn-eko Beethoven jaialdian, Passau jaialdian, Bonn-eko operan.

Errepertorio zabala lantzen du: Errenazimenduko eta Barrokoko musika, Mozart, Haydn eta Rossiniren paper liriko handiak, eta baita ere konposizio garaikideen estreinaldiak.

Opera esparruko lanaz gain, oratorio eta kontzertuetan aritzen da nagusiki, nazioarteko ospea bereganatu duelarik arlo horretako kantari bezala.

Christian Zenker-ek sakontasun handiz lantzen du *Lied* generoa. Ohiko kantu-errepertorioaz gain, hurbiletik jarraitzen ditu konpositore garaikideen lana.

“Förderpreis des Theaterfreunde des Tiroler Landestheaters” saria irabazi zuen.

Arestian grabatu du G. Ph. Telemann-en *Bürgerkapitänsmusiken* Sony / DHM zigiluarentzat eta C.P.E. Bachen obrak ere bai La Stagione Frankfurt taldearekin, Michael Schneider-en esanetara.



Fue miembro del Coro de niños Windsbach. Se graduó en la Universidad de Música y Artes Escénicas de Múnich. Antes de terminar sus estudios, Brigitte Fassbaender lo contrató en el Tiroler Landestheater, a cuyo conjunto perteneció de 2002 a 2006.

Ha cantado en el Festival de Ópera de Rheinsberg, Seefestpielen Mörbisch, el Festival Handel en Halle, el Festival de Música de Dresde, el Festival de Haydn en Eisenstadt, el Festival de Bruckner en Linz, el Festival Beethoven de Bonn…

Su repertorio abarca desde la música renacentista y barroca, los grandes papeles líricos de Mozart, Haydn y Rossini, hasta estrenos de composiciones contemporáneas.

Además del género operístico, Christian Zenker es, sobre todo, un cantante de oratorios y conciertos aclamado a nivel internacional.

Christian Zenker presta especial atención al género del *Lied*. Además del repertorio habitual de canciones y también se ocupa del trabajo de compositores contemporáneos, siendo invitado a cantar en Austria, Chipre, Alemania, etc.

Es ganador del Premio “Förderpreis des Theaterfreunde des Tiroler Landestheaters”.

Recientemente, ha grabado para el sello Sony / dhm, *Bürgerkapitänsmusiken*, de G.Ph. Telemann y C.P.E. Bach con el ensemble La Stagione Frankfurt, bajo la dirección de Michael Schneider.

**MANFRED BITTNER** baxu baritonoa | bajo barítono *(Jesus / Jesús)*

Bavarian jaio zen, Weissenburg hirian, eta Regensburger Domspatzen zentroan hasi zen musika ikasten. Wolfgang Brendel-ekin ikasi zuen Munichen eta “German Stage Association” elkartearen beka bat jaso zuen aldi bereko ikasketak egiteko Bavariako Antzerki Akademian (Prinzregententheater) eta Municheko Operan. Stuttgart-en jarraitu zuen ikasten.

Errepertorio zabala eta anitza lantzen du, hasi Erdi Aroko obretatik eta opera eta oratorio barroko, klasiko nahiz erromantikoetaraino, obra garaikideak ere estreinatzen dituelarik.

Maiz lan egiten du talde ezagunekin, hala nola, L’arpa festante, Freiburg Baroque Consort, Balthasar Neumann Ensemble, Akademie für Alte Musik Berlin, Tonhalle Orchestra Zurich, Basler Kammerorchester, Concerto Köln eta Hamburger Camerata-rekin. Zuzendari ospetsuekin kolaboratu du, besteak beste, Winfried Toll, Stephen Stubbs, Ivor Bolton, Frieder Bernius, Philippe Herreweghe, Rene Jacobs, Konrad Junghänel, Thomas Hengelbrock, Barry Kosky eta Claus Guth-ekin.

Emanaldiak eskaini ditu Municheko Musika Berriaren Biurtekoan eta Wiener Festwochen, Berliner Festspiele/Festwochen, Bachfest Leipzig eta Stuttgarteko Musika Europarraren jaialdietan. Masetto-ren papera kantatu du Mozarten *Don Giovanni* operan Thomas Hengelbrock-en zuzendaritzapean (Feldkirch-eko jaialdia) eta Legrenzi-ren *Il Guistino* operan parte hartu du Schwetzingen-eko jaialdian. Stadttheater Fürth jaialdiaren gonbita jaso zuen Viktor Ullmann-en *Der Kaiser von Atlantis* operako “Heriotza” interpretatzeko.



Nació en Weissenburg, Baviera y recibió su primera educación musical básica en el Regensburger Domspatzen. Estudió con Wolfgang Brendel en Munich y recibió una beca de la German Stage Association al mismo tiempo para la Academia de Teatro de Baviera en el Prinzregententheater y para la Ópera de Munich. Completó estudios en Stuttgart.

El extenso y variado repertorio del bajo-barítono abarca desde obras de la Edad Media a óperas y oratorios de barroco, clásico y romántico hasta el estreno de la música contemporánea.

Trabaja regularmente con reconocidos conjuntos como L’arpa festante, Freiburg Baroque Consort, Balthasar Neumann Ensemble, Akademie für Alte Musik Berlin, Tonhalle Orchestra Zurich, Basler Kammerorchester, Concerto Köln y Hamburger Camerata, con directores como Winfried Toll, Stephen Stubbs, Ivor Bolton, Frieder Bernius, Philippe Herreweghe, Rene Jacobs, Konrad Junghänel y Thomas Hengelbrock, Barry Kosky y Claus Guth.

Ha actuado en la Bienal de Música Nueva de Munich, el Wiener Festwochen, el Berliner Festspiele/Festwochen, el Bachfest Leipzig y el Festival de Música Europea de Stuttgart. Ha cantado el rol de Masetto en *Don Giovanni*, de Mozart bajo la dirección de Thomas Hengelbrock en el Festival de Feldkirch, y en la ópera *Il Guistino* de Legrenzi, en el Festival de Schwetzingen. En el Stadttheater Fürth fue invitado a interpretar “La Muerte” en *Der Kaiser von Atlantis*, de Viktor Ullmann.

## **ANDONI SIERRA** zuzendaritza | direccción

Donostian jaioa 1971n, Donostiako Goi-mailako Kontserbatorioan egin zuen erdi-mailako piano gradua. 1988tik aurrera, Madrileko Goi-mailako Errege Kontserbatorioan jarraitu zuen ikasten, hantxe eskuratu zuelarik goi-mailako diploma 1992an.

1988an, Donostiako Orfeoian sartu zen eta 12 urtez aritu zen baritono bezala. Orfeoian sartzeaz batera piztu zitzaion abesbatza eta orkestra zuzendaritzarekiko interesa. Abesbatzen zuzendaritzari buruzko hainbat ikastaro egin zituen, besteak beste, Erik Eriksson eta Pierre Cao-k emandakoak.

1998an sartu zen Donostiako Goi-mailako Kontserbatorioan, klabizenbaloa ikasteko, 2001ean goi-mailako ikasketak burututa kalifikazio altuenarekin. Urte horretan bertan sortu zituen Fiat Musica eta Capilla Ad Litteram taldeak eta Italiako eta Alemaniako errepertorio barrokoa landu zuen biekin. Bi talde haiek batu egin ziren eta horrela sortu zen Conductus Ensemble.

2001ean Euskal Herriko Goi-mailako Musika Kontserbatorioan (Musikene) sartu zen orkestra zuzendaritza ikastera eta 2006an goi-mailako diploma lortu zuen.

Ehundik gora kontzertu eman ditu Conductus Ensemble taldearekin areto garrantzitsuetan 2014 geroztik, denboraldi propio bat sortu zuen Donostiako Koruko Andre Mariaren Basilikan. Proiektu horrek "Capilla de Música Santa María del Coro" du izena eta bere helburua da Andre Mariaren basilikan hiru mende baino gehiagoz existitu zen musika kapera berreskuratzea.

Gaur egun, irakasle titularra da Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioko orkestran.



Nacido en San Sebastián en 1971, comienza los estudios musicales en el Conservatorio Superior de su ciudad natal donde cursa el grado medio de piano que completa a partir del año 1988 en el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid donde obtiene el Diploma Superior en 1992.

En 1988, ingresa en el Orfeón Donostiarra, agrupación en la que canta como barítono durante 12 años y que despierta en él el interés en la dirección de coros y orquesta. Asiste a cursos de dirección coral impartidos entre otros por Erik Eriksson y Pierre Cao.

En 1998 ingresa en el Conservatorio Superior de San Sebastián para comenzar a trabajar el clavicémbalo y ese mismo año funda los conjuntos Fiat Musica y Capilla Ad Litteram, agrupaciones con las que trabaja diversas obras del repertorio barroco italiano y alemán. Dichas agrupaciones se funden en una, surgiendo así la Asociación Musical Conductus Ensemble, agrupación a la que ha ligado su trayectoria musical.

Ingresa en Musikene en 2001 donde estudia dirección de orquesta obteniendo su Diploma Superior en el año 2006.

A lo largo de la trayectoria de Conductus Ensemble ha dirigido más de un centenar de conciertos. En 2014 crea su propia temporada en el marco de la Basílica Santa María del Coro de San Sebastián con el nombre de "Capilla de Música Santa María del Coro", proyecto que quiere ser la recuperación de la antigua capilla de música que durante más de tres siglos existió en la basílica.

En la actualidad es profesor titular de la Orquesta del Conservatorio Francisco Escudero de San Sebastián.

**BAS**
Bilbao 700-III Millenium Fundazioak
antolatu eta ekoizten du

FUNDACIÓN FUNDAZIOA
BILBAO 700 - III MILLENIUM

La Fundación Bilbao 700-III Millenium
organiza y produce
**BAS**

FUNDACIÓN FUNDAZIOA
BILBAO 700 - III MILLENIUM

Deia

EL CORREO
PARTE DE TI ZURE BAITAN

Bilbao